

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 662/2025 Foru Agindua, abenduaren 3koa. 848 eredua, eragiketen bolumenaren zenbatekoa jakinaraztekoa, onartzea eta hori aurkezteko baldintzak eta prozedura ezartzea**

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren uztailaren 22ko 390/2003 Foru Aginduaren bidez jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 848 eredua, eragiketen bolumenaren zenbatekoa jakinaraztekoa, onartu zen.

Foru agindua onartu behar da 848 eredua, eragiketen bolumenaren zenbatekoa jakinaraztekoa, arautzeko, batez ere horren inguruko arau aipamenak eguneratu behar direlako eta eredua bitarteko telematikoen bidez izapidetze modua egokitu behar delako, hau da, zergen kudeaketa hobetu eta optimizatu behar delako.

Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren Foru Arauaren testu bategina onartzen duen Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 3/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 5.1.c) artikulua honako salbuespen hau ezartzen du: aldi berean pertsona fiskoen errentaren gaineko zergaren eta sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboak direnak edo Arabako zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren 35. artikuluan aipatzen diren sozietate zibilak edo erakundeak direnak zerga honetatik salbuetsita egongo dira, beren eragiketen bolumena 1.000.000 eurotik beherakoa bada. Salbuespen hori jarduera ekonomikoen gaineko zergaren subjektu pasiboak izanik ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunak ere badirenei ere aplikatu ahal izango zaie.

Edonola ere, salbuespen hori aplikatzeko, ezinbestekoa izango da subjektu pasiboek ez edukitzea, zuzenean edo zeharka, letra honetan jasotzen den eragiketa bolumenaren baldintza betetzen ez duten enpresen ehuneko 25 baino gehiagoko partaidetzarik, non eta ez diren arrisku kapitaleko sozietate edo funtsak, hain zuzen ere abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, 77. artikuluan zehazten dituenak, baldin eta partaidetza sozietateen xedea betetzearen ondorioa bada.

Ekonomia jardueren gaineko zergaren Foru Arauaren testu bategina onartzen duen Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 3/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 14.2 artikulua hirugarren paragrafoan ezartzen denez, ekonomia jardueren gaineko zergaren salbuespena aplikatzen ez zaien subjektu pasiboek beren eragiketen bolumenaren berri eman beharko diote Arabako Foru Aldundiari.

Era berean, subjektu pasiboek beren eragiketen bolumenean gertatzen diren aldakuntzen berri eman beharko dute, baldin eta aldakuntzak berekin badakar 3/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 5. artikulua 1. apartatuaren c) letran ezartzen den salbuespenaren aplikazioa aldatzea edo foru dekretu horren 9. artikulua 1. apartatua ezartzen den haztapan koefizientearen aplikaziorako kontuan eduki beharreko tarte aldatzea.

3/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 14.2 artikulua arabera, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak ezarri behar du komunikazio horiek zer kasutan aurkeztu behar diren, zein izango den beren edukia, noiz eta nola aurkeztu behar diren eta zer kasutan aurkeztu beharko diren bitarteko telematikoen bidez.

Aurkeztutako zerga aitortpenei esker Zerga Administrazioak badaki, kasu askotan, zenbatekoa den jarduera ekonomikoen gaineko zergaren subjektu pasiboen eragiketen bolumena. Hori dela eta, jakinarazpena aurkezteko bakarrik eskatuko zaie. Jakinarazpen horretan salbuespena aplikatzeko baldintzak betetzen direla adierazi beharko da, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, sozietateen gaineko zergaren eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboak izanik Arabako Lurralde Historikoan zerga horien zergadunak ez badira.

Ondorioz, subjektu pasibo horiek beren eragiketen bolumenaren berri eman beharko dute, eta gauza bera egin beharko dute Arabako zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 35. artikuluan aipatzen diren sozietate zibil eta erakundeetako bazkideek, jaraunsleek, erkideek eta partaideek.

Udal Zerga eta Katastro Zerbitzuak gai horri buruz egindako txostena aztertu da.

Horregatik guztiagatik, bigarren diputatu nagusiordea eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua naizen aldetik, eta dauzkadan ahalmenak erabiliz, hauxe

#### XEDATZEN DUT

### **1. artikulua. 848 eredua, eragiketen bolumenaren zenbatekoa jakinaraztekoa, onartzea**

848 eredua, eragiketen bolumenaren zenbatekoa jakinaraztekoa, onartzen da. Eredu hori jarduera ekonomikoen gaineko zergaren Foru Arauaren testu bategina onartzen duen Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 3/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 5.1.c) artikuluan ezartzen den salbuespena aplikatzeko aurkeztu behar da. Eredua foru agindu honen eranskinan dago.

### **2. artikulua. 848 eredua, eragiketen bolumenaren zenbatekoa jakinaraztekoa, aurkeztu behar dutenak**

1. 848 eredua jarduera ekonomikoen gaineko zergaren subjektu pasiboek aurkeztu beharko dute, hain zuzen ere pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, sozietateen gaineko zergaren edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunak izanik Arabako Lurralde Historikoan zerga horren aitortpena aurkezten ez dutenek.

2. Arabako zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 35. artikuluan aipatzen diren sozietate zibilen eta erakundeen kasuan bazkideek, jaraunsleek, erkideek eta partaideek aurkeztu beharko dute 848 eredua, aurreko lehenengo apartatuan ezartzen den bezala. Testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua erabili gabe dagoen jarauntsiei dagokienez, administratzaileak edo gozamendun ahaldunak aurkeztu beharko du, hurrenez hurren.

Halere, Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 35. artikuluan aipatzen diren sozietate zibilek eta erakundeek eragiketen bolumenaren zenbatekoa Arabako Lurralde Historikoan aurkeztutako zerga aitortpen batean dagoeneko aurkeztu badute, ez dute aurkeztu beharko 848 eredua.

3. Merkataritzako Kodearen 42. artikulua aipatzen diren sozietate taldeen kasuan, sozietate nagusiek eman beharko dute taldearen eragiketen bolumenaren berri. Nolanahi ere, 848 ereduan adierazi beharko dira Arabako Lurralde Historikoan jarduera ekonomikoren batean diharduen taldearen entitate guztien identifikazio fiskaleko zenbakiak.

### **3. artikulua. 848 eredua, eragiketen bolumenaren zenbatekoa jakinaraztekoa, aurkezteko epealdia**

848 eredua urtero aurkeztu beharko da, komunikazioak jarduera ekonomikoen gaineko zergan ondorioak sortu behar dituen ekitaldiko urtarrilaren 1etik otsailaren 14ra bitartean, biak barne.

### **4. artikulua. 848 eredua, eragiketen bolumenaren zenbatekoa jakinaraztekoa, aurkezteko modua**

Zergapeko guztiek modu telematikoan aurkeztu beharko dute 848 eredua.

848 eredua 32/2020 Foru Dekretuaren 3. artikulua 2. apartatuan ezartzen den moduan aurkeztu beharko da (32/2020 Foru Dekretua, urriaren 6koa, Arabako Foru Ogasunean aitortpenak eta autolikidazioak bide telematikoak aurkezteko baldintza eta betekizun orokorrak arautzen dituena).

**5. artikulua. Subjektu pasiboak eragiketen bolumenaren zenbatekoa zehazteko modua**

1. Eragiketen bolumena abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, 5. artikulua 1. apartatua ezartzen duenaren arabera kalkulatu da.

2. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren edo sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboaren kasuan eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunen kasuan, eragiketen bolumena hauxe izango da: zergaren aitortzea aurkezteko epealdia ekonomia jardueren gaineko zerga sortu den urtearen aurreko urtean amaitu den zergaldiko eragiketen bolumena.

3. Zergen Foru Arau Orokorren 35. artikulua 3. apartatua aipatzen diren sozietate zibilen eta erakunde kasuan eta testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua erabili gabe dagoen jarauntsien kasuan, eragiketen bolumena jarduera ekonomikoaren gaineko zerga sortu den urtearen aurreko urtekoaren aurreko urteko eragiketen bolumena izango da.

4. Subjektu pasiboaren eragiketen bolumena kalkulatzeko, hark egindako jarduera ekonomiko guztiak hartuko dira kontuan.

Erakundea sozietate talde bateko kidea bada, Merkataritza Kodearen 42. artikulua arabera, aurrerago aipatutako magnitudeak talde horretako erakunde guztienak izango dira, urteko kontu bateratuak aurkeztu beharra gorabehera.

5. Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunen kasuan, Espainian dauden establezimendu iraunkorren multzoari egotz dakioken eragiketen bolumena hartuko da kontuan.

6. Zergaldi hori urtebete baino laburragoa izan bada, eragiketen bolumena urtekoratu egingo da.

**XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA**

Foru agindu hau indarrean sartzen denean indargabetuta geratuko da 390/2003 Foru Agindua, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuarena, uztailaren 22koa, zeinaren bidez jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren 848 ereduak, eragiketen bolumenaren zenbatekoa jakinaraztekoa, onartu baitzen.

**AZKEN XEDAPENA**

Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, eta 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera aurkezten diren aitorten informatiboei aplikatuko zaie lehen aldiz.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko abenduaren 3a

*Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*  
**ITZIAR GONZALO DE ZUAZO**

*Ogasun zuzendaria*  
**MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA**

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Alava www.araba.eus</p>	<p><b>Jarduera ekonomikoaren gaineko zerga</b> <b>Eragiketen bolumenaren zenbatekoa jakinaraztea</b> <b>Impuesto sobre actividades económicas</b> Comunicación del importe del volumen de operaciones</p>	<h1>848</h1>
	<p>EREDU INFORMATIBOA ■ MODELO INFORMATIVO</p>	

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila

Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos

**JEZ EKITALDIA**  
**EJERCICIO IAE**

IDENTIFIKAZIOA ■ IDENTIFICACIÓN	
IFZ ■ NIF	Sozietatearen izena ■ Razón social
<p>9001 Aitorpenaren identifikazio zenbakia Número identificativo de la declaración .....</p>	<input type="text"/>

HARREMANETARAKO PERTSONA ■ PERSONA CON QUIEN RELACIONARSE		
1 Abizenak eta izena edo sozietatearen izena Apellidos y nombre o razón social	2 Telefonoa Teléfono	3 Helbide elektronikoa Correo electrónico


ORDEZKOA ■ SUSTITUTIVA	
<p>901 Ordezko aitorpena Declaración sustitutiva <input type="checkbox"/></p>	<p>902 Autolikidazio ordezkia bada, idatzi hemen aurreko aitorpenaren identifikazio zenbakia En caso de autoliquidación sustitutiva, consigne a continuación nº identificativo de la declaración anterior .....</p>
<p>930 Epez kanpo eta errekerimendu bidez aurkeztua Presentación fuera de plazo por requerimiento <input type="checkbox"/></p>	

ERAGIKETEN BOLUMENA ■ VOLUMEN DE OPERACIONES	
4 ERAGIKETEN BOLUMENA ■ VOLUMEN DE OPERACIONES .....	<input type="text"/>
5 ZERGA EKITALDIA ■ EJERCICIO FISCAL	<input type="text"/>
6	<p>1. Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboa. Sujeto pasivo del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas. .... <input type="checkbox"/></p> <p>2. Sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboa edo establezimendu iraunkorraren bidez jarduten duen ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergaduna. Sujeto pasivo del Impuesto sobre Sociedades o contribuyente del Impuesto sobre la Renta de no residentes que actúe mediante establecimiento permanente. .... <input type="checkbox"/></p> <p>3. Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 33. artikuluan aipatzen den sozietate zibila edo entitatea. Sociedad Civil o Entidad a que se refiere el artículo 33 de la Norma Foral General Tributaria. .... <input type="checkbox"/></p> <p>4. Sozietate Taldea, Merkataritza Kodearen 42. artikulua. Grupo de Sociedades artículo 42 Código Comercio. .... <input type="checkbox"/></p> <p>5. Establezimendu iraunkor bat baino gehiago duten ez-egoiliarak. No residentes con más de un establecimiento permanente. .... <input type="checkbox"/></p>

RE: 25/238





 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p><b>Jarduera ekonomikoen gaineko zerga</b> <b>Eragiketen bolumenari buruzko berriematea</b> <b>Impuesto sobre actividades económicas</b> Comunicación Volumen de Operaciones</p>	<b>848</b>
	<p><b>JARRAIBIDEAK-INSTRUCCIONES</b></p>	

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila - Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos

## LABURPEN ORRIA

### 1. EKITALDIA

EKITALDIA: Hautatu jarduera ekonomikoen gaineko zergaren aitortpenari dagokion zerga ekitaldia. Urteko aldizkotasuna. 848 eredu aitorpenari dagokion urteko urtarrilaren 1etik otsailaren 14ra bitartean aurkeztu behar da.

### 2. IDENTIFIKAZIOA

IFZ: Pertsona edo erakunde aitortzailearen identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ) jarri behar da.

ABIZENAK ETA IZENA/SOZIJETATEAREN IZENA:

- Pertsona fisikoa bada, honela idatzi behar dira izen-abizenak: lehenengo abizena, gero bigarrena eta azkenik izen osoa, hurrenkera honexetan.
- Pertsona juridikoa edo errenta egozketaren araubideko erakundea bada, erakundearen sozietate izena edo izendapen osoa idatzi behar da, anagramarik gabe.

(9001) laukia AITORPENAREN IDENTIFIKAZIO ZENBAKIA:

Aitorpenari dagokion identifikazio zenbakia jarriko da. Jarri beharreko identifikazio zenbakia sekuentziala izan behar da, eta horren lehenengo hiru digituak 848 kodeari dagozkionak izango dira.

Eremuaren formatuak 848EEEEENNNNNN izan behar du. EEEE aitorpenaren ekitaldia da, eta, NNNNNNN, berriz, segidazko balore elkarren ondoko bat aitorpen bakoitzerako.

### 3. HARREMANETAN JARTZEKO PERTSONA:

Harremanetarako pertsonaren datuak:

- (1) laukia DEITURAK ETA IZENA EDO SOZIJETATEAREN IZENA
- (2) laukia TELEFONOA
- (3) laukia HELBIDE ELEKTRONIKOA

### 4. AITORPEN ORDEZKOA:

Aparteko kasuetan, bigarren aitorpena edo geroagoko beste bat aurkeztuz gero, lauki hau bete behar da nahitaez:

- (901) laukia ORDEZKO AITORPENA: Jarriko da baldin eta aitorpena lehehago aurkeztutako ekitaldi bereko beste aitorpen bat oso-osorik baliogabetu eta ordezteko aurkezten bada.

Ordezko aitorpen batek aurreko aitorpen bakar bat baino ezin du baliogabetu.

## HOJA RESUMEN

### 1. EJERCICIO

EJERCICIO: Seleccionar el ejercicio fiscal del Impuesto sobre Actividades Económicas al que corresponde la declaración.

Periodicidad anual. 848 eredu aitorpenari dagokion urteko urtarrilaren 1etik otsailaren 14ra bitartean aurkeztu behar da.

### 2. IDENTIFICACIÓN

NIF: Se hará constar el número de identificación fiscal (NIF) de la persona o entidad declarante.

APELLIDOS Y NOMBRE/ RAZÓN SOCIAL:

- Para personas físicas, se consignará el primer apellido, el segundo apellido y el nombre completo, en este mismo orden.
- Para personas jurídicas y entidades en régimen de atribución de rentas, se consignará la razón social o la denominación completa de la entidad, sin anagramas.

Casilla (9001) NÚMERO IDENTIFICATIVO DE LA DECLARACIÓN:

Se consignará el número identificativo correspondiente a la declaración. El número identificativo que habrá de figurar será un número secuencial cuyos tres primeros dígitos se corresponderán con el código 848.

El formato del campo debe ser 848EEEEENNNNNN. EEEE el ejercicio de la declaración y NNNNNN un valor secuencial consecutivo por cada declaración.

### 3. PERSONA CON QUIEN RELACIONARSE:

Datos de la persona con quién relacionarse:

- Casilla (1) APELLIDOS Y NOMBRE o RAZÓN SOCIAL
- Casilla (2) TELÉFONO
- Casilla (3) CORREO ELECTRÓNICO

### 4 DECLARACION SUSTITUTIVA:

En el caso excepcional de segunda o posterior presentación de declaraciones, deberá cumplimentarse obligatoriamente la siguiente casilla:

Casilla (901) DECLARACIÓN SUSTITUTIVA: Se consignará si la presentación tiene como objeto anular y sustituir completamente a otra declaración anterior del mismo ejercicio.

Una declaración sustitutiva solo puede anular a una única declaración anterior.

- (902) laukia AURREKO AITORPENAREN IDENTIFIKAZIO ZENBAKIA: "Ordezko aitortpena" laukietan marka bat jarri bada, ordeztutako aitortpenaren identifikazio zenbakia idatzi behar da.

- (930) laukia EPEZ KANPO ETA ERREKERIMENDU BIDEZ AURKEZTUA: Idatziko da ea aurkezpenaren helburua errekerimendu bati erantzutea den.

#### 5. ERAGIKETEN BOLUMENA

- (4) laukia: Idatzi eragiketa bolumenaren datua. Zergaldiak urtebete baino gutxiago iraun badu, eragiketa bolumenaren zenbatekoa urtebeteraino igoko da.

- (5) laukia: ZERGA EKITALDIA. Kasuan kasuko zergaren autolikidazioan aitortutako zergaldia da, zeinaren aurkezpen epea jarduera ekonomikoen gaineko zergaren sortzapenaren aurreko urtean amaitu baita.

Adibidez, "X JEZ" ekitaldian aurkeztu beharreko jakinarazpenean, "X-1" ekitaldian aurkeztutako autolikidazioari dagokion eragiketa bolumenaren zenbatekoa idatziko da, zeina normalean "X-2" zergaldiari egokituko baitzaio.

- (6) laukia: Idatzi aitortzaile motaren arabera.

- (101) laukia: Idatzi Arabako Lurralde Historikoan jarduten duten taldeko erakundeen datuak bakarrik.

- (201) laukia: Idatzi Arabako Lurralde Historikoan jarduten duten establezimendu iraunkorren datuak bakarrik.

- Casilla (902) NÚMERO IDENTIFICATIVO DE LA DECLARACIÓN ANTERIOR: En el caso de que se haya consignado una marca en la casilla "Declaración sustitutiva", se consignará el número identificativo correspondiente a la declaración a la que sustituye.

- Casilla (930) PRESENTACIÓN FUERA DE PLAZO POR REQUERIMIENTO: Idatziko da ea aurkezpenaren helburua errekerimendu bati erantzutea den.

#### 5. VOLUMEN DE OPERACIONES

- Casilla (4) Consigne el dato del volumen de operaciones. En el caso de que el período impositivo haya tenido una duración inferior al año, el importe del volumen de operaciones se elevará al año.

- Casilla (5) EJERCICIO FISCAL. Hace referencia al período impositivo que se declara en la autoliquidación del Impuesto correspondiente cuyo plazo de presentación ha finalizado el año anterior al del devengo del Impuesto de Actividades Económicas.

Adibidez, "X JEZ" ekitaldian aurkeztu beharreko jakinarazpenean, "X-1" ekitaldian aurkeztutako autolikidazioari dagokion eragiketa bolumenaren zenbatekoa idatziko da, zeina normalean "X-2" zergaldiari egokituko baitzaio.

- Casilla (6) Consigne según el tipo de declarante.

- Casilla (101) Consigne únicamente los datos de las entidades del grupo que realicen actividad en el Territorio Histórico de Álava.

- Casilla (201) Consigne únicamente los datos de los establecimientos permanente con actividad en el Territorio Histórico de Álava.